

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko otsailaren 21a

*

Euskaltzaindiak Polikarpo Iraizozkoari omenaldia

■ Euskaltzaindiak Polikarpo Iraizozkoa aita kaputxinoa omenduko du datorren martxoaren 22an bere sorterrian, euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena ospatzen den honetan. Beste kaputxino ospetsuen artean hain ezaguna ez bada ere, ekarpen joria utzi du Ultzamako Polikarpok: hamalaudunak, ipuinak, olerkiak, predikuak, itzulpenak... Horiek guztiak argitaratzeko asmo sendoa du, hain zuzen, Euskaltzaindiak. Francisco Ondarra kaputxinoa ari da lan guztia bil-tzen. ■



Tuterako komentuan, 1835. urtean. Eserita, ezkerretik hasita lehenengoa da Polikarpo.

EGUNKARIA

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Edgar Allan Poe bezalako idazle handien poemak yuppientzako betaurrekoen publizitatean erabiltzen diren garai nahasi hauetan, zinea aspalditik galdutzat jotzen genuen mistizismoa berreskuratzen hasi dela dirudi, eta *Breaking the waves* filmearen arrakasta ez da joera horren adierazle bakarra. Esate baterako, *Cosas que hacer en Denver cuando uno está muerto* edo *Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto* filmeetan —a zer-nolako titulu luzeak eta bietan heriotzaren aipamena— gaizkile mistikoak dira Andy Garciak eta Federico Lupppik gorpuzten dituzten pertsonaiak, on puska bat den gangster atsegina lehena eta Jainkoaren mezu baten zain bizi den hiltzailea bigarrena. Eta zerrenda ez da hor bukatzen, *El día de la bestia* pelikularen gaia Jainkoaren eta Deabrua-

ren arteko borroka amaigabea baita.

Ez dira oraindik hamar urte pasa Berlingo harresia bota zutenetik eta materialismoaren arrasto guztiak, zientifikoak nahiz historikoak, zakarrontzian desagertu dira. Batzuek behin eta berriro esaten dute merkatua dela orain jainko bakarra, baina pelikula horiek agerian uzten dute hori ez dela egia eta laster berreskuratutako lehengo aingeruak, kerubinak eta Pedro Botororen sutegia. Hori bai, aro berrian klixeak apurtzen ari gara behinik behin eta gaur egun mezara doazen guztiek ez dute mojak edo apaizak izan behar. Aipatutako filmeetan kontatzen zaigunaren arabera, eliza batzuetako sarrean armairu bat jarri beharko lukete lapurrek eta hiltzaileek armak utz ditzaten. Lehendik ere bagenekien arma saltzaile askok eta izugarritzko sarras-

kiak agindu dituzten jeneral batzuek otoitz egiten dutela egunero, baina orokorrean argiago zeuden diferentzia moralak, bazenekien non aurki zenitzakeen gaiztoak eta non onak. Sinkretismoa eta eklektizismoa nagusitu direnetik, berri, ezkondu zintuen apaiza *serial killer* fededun bat izan daiteke edo laurogei urteko amona auzoko droga trafikantetik handiena. Edo alderantziz, goizaldean izkina batean labana ateratzen duen gazteak gobernu kanpoko erakunde bateko bolondresa izan daiteke arratsaldean. Gaur goizean sekulako aurikularrak zeramatzen agure korbatadun bat ikusi dut eta bere ondortik pasatzean kaskoetatik ateratzen zen musika heavya zela ohartu naiz. Elizan sartu da aurikularrak kendu gabe.

Argi dago mistiko berri hauen garai-penak manikeismoaren hondamena eragingo duela. X

Mistika berria

KONTZERTUAK

Gares: La Polla eta Porretas taldeek joko dute Fundamental aretoan bihar, hilak 22, gaueko 23:00etatik aitzina.

Iruñea: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Gaiarre Antzokian 20:00etan. Orkestrak Debussy, Mozart eta Mendelssohnen obrak interpretatuko ditu.

Iruñea: Erraldoien txokoan Ama Lur orkestrak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, otsailak 27, arratseko 20:30etan.

Leitza: Torrea tabernan Joxe Ripiauk joko du bihar, hilak 21, gauerditik aitzina.

ANTZERKIA

Iruñea: Erraldoien txokoan Narentrepe taldeak *Euforia* antzetzuko du gaur arratsaldeko 8:00etan.

Nafarroako Antzerki Eskolan Ttanttaka taldeak *Umekeriak* taularatuko du datorren ostegunean, otsailak 27, arratseko 20:30etan.

ERAKUSKETAK

Aranguren: Josetxo Lorinteren argazkiak Auzotegi Kultur Etxean ikusgai izanen dira otsailaren 28ra arte.

Zizur Nagusia: Julio Basterretxea, Galileo Ramos eta Alex Urdanozen Amazoniari buruzko argazkiak ikusteko parada dago Kultur Etxean martxoaren 2ra arte.

Tafalla: Andres Berrobi Encinarek forjan egindako lanak daude ikusgai Kultura Patronatuan.

ZINEMA

Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Zinema eta zokoratuen zikloan, *Ley 627* pelikula eskainiko dute datorren ostegunean 07 gelan arratseko 8:00etan. Sarrea doan da.

Tafalla: Antonia pelikula ikusteko aukera dago datorren ostegunean, hilak 27, Cinema Españolen. Sarrerak 250 pezeta balio du eta emanaldiak 8:00etan eta 10:30etan izanen dira.

BESTELAKOAK

Tutera: Ebroko Done Jakueren Lagunen elkarteak gaur eta bihar bilduta daude aurrerantzean eginen dituzten ekitaldiak egituratzeko.

Iruñea: Carmen Cortesen dantza konpainiak Federico Garcia Lorcaen Yerma taularatuko du bihar eta etzi Gaiarre antzokian. Emanaldiak arratseko 8:00etan izanen dira.

Iruñea: IKAKo Arturo Kanpion Euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta, asteazkenean Asisko Urmeneta eta Xamar euskal umore klasikoak ariko dira solasean 6:30etan, eta ostegunean Mikel Aranbururen txanda izanen da. Goizeko 10:30etan, Internet izanen du mintzagai.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Diskurtso xuriak

Agintariak hitz politz osaturiko diskurtso xurietan espezialistak dira. Lehengo egunean diputazioburuak Euskaltzaindiko ordezkarien bisitarako horietako bat enkargatu zuen. Protokolo arauak agintzen dute hori bezalako edozein ekitaldik diskurtsoa behar duela, etxeokarena eta bisitariarena. Idatzita ez egon arren, ohiturak dio diskurtso horiek xuriak eta mamirik gabekoak behar dutela izan eta, askotan, komenigarria dela benetako iritzia alde batera uztea. Izan ere, kortesia egia baino askoz garrantzitsuagoa omen da horrelakotetan. Euskaltzaindiaren nafar ordezkari berriak kazetarien galderei erantzunez antzeko zerbait erran zuen, nik baino zehatz eta laburrago: «Diskurtsoa ongi, gero zer eginen duten... hori bertze kontu bat da, ikusiko dugu».

Balio handirik gabeko izanagatik komunikabideetan leku handia hartzen duten diskurtsoez (eta, hain zuzen, lehengo egunekoaz) pentsatzen ari nintzela, lagun batek deitu eta hauxe kontatu dit: bere enpresa eta Nafarroari buruzko orri bat egin zuela Interneten sartzeko, bost hizkuntzatan. Berak ordainduriko orria Industria Departamentuan aurkeztu eta akats bakarra zuela adierazi zioten, hots, bost hizkuntzatan egin

beharrean aski zirela lau, testuaren zati bat kentzeko, sobran zegoen hizkuntzak hartzen zuena, hain zuzen. Hizkuntza hori zein zen ezetz asmatu!

Diputazioak euskararen museoa eginen luke, hizkuntzaren gaineko erakusketa ibiltariak ere antolatuko ditu, gizartean hain eragin handia duten aldizkari ofizialak, bai Gobernuarena nola Parlamentuarena, goitik behera euskaratuko ditu, guk euskaldunok, *Olletarako (Leotz) kable bidezko telebistaren banaketa sarea izeneko lanak adjudikatzen dituen kontseilariaren 360 / 1996 Foru Agindua* euskaraz irakur dezagun. Baina Internet oraina eta etorkizuna da, aski da, beraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanieraz egitea. Interneten nork irakurriko luke euskaraz?

Ai ene, protokoloak gezurrak debekatuko balitu! Hitz polit bezain faltsuak botatzen ari eta, taka, hizlariari Pinotxori bezala gertatuko baltzaio! Diputazioaren jauregia bisitatzen duten batzuek hobe lukete diskurtso ederra entzun beharrean Departamentu bateko arduradunek nere lagunari errandakoa aditzeko parada balute, agintarien euskararekiko diskurtsoa, benetakoa, horixe delako. Ekitaldi ofizialetan protokoloak debekatu baina euskararekiko jokatoldea gidatzen duena.



asteko pertsonaiak



Mikel Saralegi
Harrijasotzailea


■ Mikel Saralegi, Euskadiko Sei Orduetan 325 kiloko harria jaso ondoren, berriz ere marka hori hobetzen saiatuko da. Saralegiren ahalegina izanen da atzo hasi zen Korrika Kulturalaren barruko ekitaldietako bat. Harrijasotzailea leitzarra 326 kiloko bizkarreratzen saiatuko da heldu den martxoaren 2an herriko plazan. Oraingo sasoi ona aprobetxatuz, etxean entrenamenduetan altxatzen duen 326 kiloko harria jendaurrean ere altxatzeko gai dela erakusten saiatuko da. Bere herrian egiten duen saialdian 326koa jasotzen ez badu ere, lanean eta erakusketak egiten jarraituko du plazaz plaza. Aldi berean, Iruñeko Jolaskide gimnasioan monitore lanetan ariko da.



Montxo Armendariz
Zinemagilea

■ Montxo Armendarizek bere azken filmea, *Secretos del corazón* aurkeztu zuen joan den astelehenean Berlingo Zinemaldian. Armendarizek 27 ordu, *Las cartas de Alu* eta *Historias del Kronen* pelikulak Donostiako Zinemaldian aurkeztu zituen, baina lehenbiziko aldiz doa Berlinera. Bere ustez, beste jaialdiek ez duten giro epela du Berlingoak, eta bere azken lanak harrera ona izan du. *Secretos del corazón* Tuteran, Iruñean eta Izaban filmatua dago eta 60ko hamarkadan girotua. Oso intimista da filmea, eta helduen mundu bihurriari haur baten ikuspuntutik begiratzen saiatu da Armendariz.

ahaztu gabe!



EUSKALGINTZA

Euskararen Unibertsoren aurkezpena: Euskararen Unibertsoren aurkezpena eginen da gaur, hilak 21, arratsaldeko 7:30etatik aitzina. Aurkezpena Eugenio Arraiza Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusiak eginen du Kultur Etxean. Arraizak *Euskararen Unibertsota* txostena azalduko du, eta martxoaren 7an eta 8an Donostiako Costa Vasca hotelean izango diren jardunaldien helburuez ere hitz egiten du. Aurkezpenera joateko gonbita egiten zaie euskararen orainaz eta geroaz kezkatutik dauden herritar guztiei, haien partehartzea ere futezkoa izanen baita antolatzailen ustetan. Bestalde, Euskararen Unibertsotako 168 matrikula jaso ditu dagoeneko aipatu jardunaldietarako. Izena emateko epea hilaren 24an bukatzen da; beraz, parte hartzeko interesa duena oraindik garaitz dabil. Izena eman duten guztiek, ekarpenekin osatutako txostena, horien eztabaidarako irizpideak, eta jardunaldietarako metodozko zehaztapenak jasoko dituzte, jardunaldien ordutegiarekin batera, datorren astean.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzakako saioa 12.30etan.

Auritz



Sai arrek ardiak hiltzeko ohitura ote duten aztertzeo proba egin zuen Ugatzak hilaren 2an.

ARTXIBOKOA

Ugatzak salatu du alkateak ez duela nahi Linduxeko txabola berriz jasotzea

Joan den apirilean norbaitek erre egin zuen hegaztiak ikertzeko eraikina

Alberto Barandiaran / Iruñea

UGATZAK, ingurugiro hezkuntza, babesa eta ikerketa elkarrekin, salatu egin ditu ohar baten bidez Linduxen zuen txabola berreraikitzeo Aurizko alkateak paratutako trabak. Txabola erre egin zuten joan den urteko apirilean; taldeak berriki eskatu dio Udalarari baimena berriro altxatzeko, baina Jose Ignacio Dufur alkateak ezetza eman dio proiektuari, Arkitektoen Elkargoaren zigilua duen arren. Ugatzak hauxe galdetu du oharrean: «Ez al da hori inkontrolatuen alde jartzear?».

Linduxen urte asko daramatza jada Ugatzak hegazti migratzaileen mugimenduak aztertzen eta toki estrategiko horren gainetik igaro diren espezieak zenbatzen. Ugatzaren ustetan, gune hori oso garrantzitsua da hainbat arrazoiengatik: hegazti migratzaileak ikertzeko tokia delako, naturaz gozatzeko jende guztiak dituen eskubideak babesten dituelako eta inguruan gertatzen diren gertakarien berri izan dezakeelako nahi duen orok. Horrelako ikerketetan aitzindaria den talde horrek, halaber, uste du hegazti migratzaileen kontserbazioan denek dutela ardura. «Hegazti migratzaileak ez dira inorenak», dio aipatu oharrean, «mundu osoko ondareak direlako: lurralde batzuek (iparralde-

Linduxen hegazti migratzaileen zeharkaldiak ikertzeko Ugatza taldeak zuen txabola joan den apirilean erre zuen norbaitek. Jose Ignacio Dufur Aurizko alkate eta Nafarroako Ehibitzen Elkartearen presidentea esan zuen Gurelur elkarte ekologistak sortutako gatazka giroaren ondorio izan zela eraso, eta orain ukatu egin dio Ugatzari txabola berreraikitzeo baimena.

koek) badute ardura ugaltze garaiko populazioak eta inguruak babesteko; beste batzuek (hegoaldekoek) ardura hori dute negu garaian. Onartzen baldin bada Auritz eta antzeko aldeek —horrelako ardurarik ez dutenek alegia— izan dezaketela ehizatik etekina ateratzeko eskubidea, onartu egin beharko da era berean ikertzeko eskubidea ere badagoela». Ugatzaren ustez, eskubide hori ukatzen bada, eskatu egin beharko zitzaizkien aurreko herrialdeei ehizaz bakarrik arduratzen diren herrietan ehiza debeka dezatela. Oharrak ohar-tarazi dio Dufur alkateari baimena eman diezaiola Ugatzari txabola berriro eraikitzeo, eta era-

soaren aurretik zegoen egoerara itzultzeko.

Saiek ez ardi hilik ez bizirik nahi • Bestalde, gogoratu behar da joan den otsailaren 2an esperientzia bat egin zutela Ugatza taldeko zenbait partaidek Linduxen, inguru horretako sai batzuek animalia bizidunei eginiko ustezko erasoak ikertzeko asmoz. Jakina denez, Luzaideko artzain batzuek salatu zuten lazko amaieran ardi batzuk hil zituztela sai arrek, gero jateko. Horrek sorpresa handia eragin zuen inguruko biztanleen eta ekologisten artean eta administrazioan, ordura arte ez baitzuten inork horren berririk. Notiziak ika-mika eragin zuen

administrazioko teknikarien eta ganaduzaleen artean, eta eginiko ikerketak baieztatu egin zuen azkenean sai batzuek eraso egin ziotela ardi zenbaiti, baina ez propio halengana oldartu zirelako, baina ardiak saien multzora hurbildu zirelako. Gainera, hegazti jakin batzuen jarrera berririk ez zela baieztatu zuen ikerketak, eta horiek akabatzea ere proposatu zen.

Aipatu egun horretan Ugatzakoek ardi bat hilik eta beste bat bizirik lotu zuten Linduxetik gertu, saiek zer erreakzio zuten ikusteko. Egun osoa zain egon ondoren, ez zen jarrera arrarorik antzeman, eta ez zen sairik hurbildu ardiengana. Ugatzakoek aipatu dutenez, «ez da batere arraroa hilik zegoen ardi garbitzera ere hurbildu ez izana, prentsan esan izan dena, hau da, saiak gosez daudela, ez delako egia». Talde ekologistako partaideek azaldu dute azken hiru hilabeteotan, esate baterako, Iparraldeko basozainek 20 tonatik gora haratustel bota dutela Luzaideko mugatik gertu, eta gosete garaian saiek distantzia luzeak izan dira, eta Frantziako erdialdeko mendizerrako eta Andaluziako hegazti batzuk ere ikusi izan dira Pirinioetan», amaitu du oharra. X

Ugatzakoek ardi bat hilik eta beste bat bizirik lotu zuten Linduxetik gertu hilaren 2an, saiek zer erreakzio zuten ikusteko. Egun osoan zain egon ondoren, ez zen jarrera arrarorik antzeman

Doneztebe

Aizkora apustu interesgarria izanen da igande honetan

■ *Arria V.a eta Daniel Vicente Landa aizkolariek 12 kanaerdiko moztu beharko dute*

Erredakzioa / Iruñea

AIZKOLARI apustu erakaragarria egingen da igande honetan Donezteben, Xabier Orbegozo Arria V.a errejidarraren eta Daniel Vicente Landa otsagiarraren artean. Bi aizkolari gazteek hamabi kanaerdiko moztu behar dituzte, eta lehengo apustu zaharren zantza egingen da lehia, diru franko baitago tartean. 500.000 pezeta (20.160 libera) jarri ditu alde bakoitzak jokoan, eta Euskal Herriko Kirol Federazioak kontrolatuko du proba.

Xabier Orbegozok hemeretzi urte ditu, 1,90 metro da luze eta 98 kilo pisatzen du. Daniel Vicente Landa otsagiarrak 27 urte ditu, 1,80ko luzera eta 90 kiloko pisua. Familia kasta duen gipuzkoarra nafarraren aurka, beraz. Hitzordua eguerdiko 12:30etan izanen da Doneztebeko frontoian. X

Zudairi

Artzaintzaren iragana eta gaur egungo egoera ikertuko da larunbatean

Erredakzioa / Iruñea

ARTZAINZAREN iragana eta gaur egungo egoera aztertuko da hitzaldi batean heldu den larunbatean Zudairin, Arantzadua kultur taldeak antolatuta. Hitzaldian parte hartuko dute adin guztietako artzainek eta Larraonako albaiterok, Fermin Leizaola dutela moderatzaile, Aranzadi Zientzi Elkarteak kidea.

Artzaintza Ameskoan: baliabideak, tradizioa eta kultura izango du izenburua hitzaldiak, eta arratsaldeko bostetan hasiko da Zudairiko eskolan. Mahainguruko partaideak ondoko hauek izango dira: Margarita San Martin (Zudairi), Elias Goñi (Barindano), Secundino Andueza (Bakedano), Jose Luis San Martin (Barindano), Francisco Ruiz (Eulate), Amaia Balerdi (Zudairi), Pedro Mari Agirre (Aranaratz) eta Javier Saenz de Jauregi (Artatza-Urra). Hitzaldiaren ondoren lanabesak eta artzaintzarekin lotutako tresnak jarriko dira erakusketa batean.

Bazkaria izango da hitzaldiaren aurretik Bakedanoko Urederran, ordu bietan, eta ondoren berendua egingo da gazta eta ardoarekin. X

Polikarpo Iraizozkoari
omenaldia Ultzaman

1932an Urbasara egin ibilaldia. Eserita, ezkerretik hasita lehenengoa da Polikarpo Iraizozkoa.

EGUNKARIA

Ultzamako gizon xaloa

Euskaltzaindiak Polikarpo Iraizozkoa aita kaputxinoa omenduko du martxoaren 22an haren sorterrian

Eduene Elizondo / Iruñea


EUSKALTZAINDIAK Polikarpo Iraizozkoa omenduko du datorren martxoaren 22an, Iraizotz haren sorterrian; aita kaputxinoaren jaiotzaren mendeurrena da beteko da aurten. Euskaltzaindikok kideek, horretarako, hainbat ekitaldi eginen dituzte Ultzamako Iraizotz herrian bertan. Martxoaren 21ean, goizean, hileroko bilkura eginen dute, eta arratsaldean eta hurrengo goizean, berriz, bi urtean behin eginen dituzten barne jardunaldiak eginen dituzte. Hilaren 22an, gainera, Polikarpo Iraizozkoa omenduko dute. Hamabi eta erdietan hasiko da ekitaldia. Aita kaputxinoa sortu zen etxean —herriko maisuaren etxean, maisu baitzuen aita— oroigarria jarriko dute, eta Jesus Goldarazek eta Francisco Ondarrak hitzaldia eskainiko dute.

Euskaltzaindiak, aita kaputxino euskaltzale ospetsuen artean hain ezaguna ez den Polikarpo Iraizozkoa denon gogora ekarri nahi izan du martxoan eginen dion omenaldiaren bitar-

Euskaltzaindikok kideek eta herritarrek Polikarpo Iraizozko aita kaputxinoa omenduko dute Ultzaman datorren martxoaren 22an, aurten haren jaiotzaren mendeurrena dela aitzakiatzat hartuta. Euskaltzaindiak, gainera, ultzamarraren lanak argitara emateko asmo sendoa du.

tez. «Beste kaputxino euskaltzale asko eta asko bezala, Euskal Herrietik kanpora joan zen obedienciaz, gerra ondoko urteetan. Erroman kargu inportanteak izan zituen, baina, azken batean, bera zen euskaltzain eta euskalaria, Nafarroako euskarari lan asko eskaini zion gizona». Jose Luis Lizundia Euskaltzaindikoko idazkariorde-kudeatzailea mintzatu da horrela Polikarpo Iraizozkoari buruz.

Lizundiak aipagai izan ditu kaputxinoak bere bizitza osoan zehar jorrotutako alderdi ezberdinak, haren lanaren garrantziaren adierazgarri. «Nafarroako euskara landu zuen hizkuntzalaria izan zen batetik, olerkigile bestetik, eta baita mota askotako itzulpenen egile ere». Lizundiak gogoratu legez, oparoa eta ezberdina da Polikarpo Iraizozkoaren ekarpena, baina ez, ordea, hagitzez ezaguna. «Gerraren etena egon

Polikarpo Iraizozkoa,
aita kaputxinoa.

EGUNKARIA

zen batetik, eta Erroman eman zuen urte mordo bestetik», zehaztu du Euskaltzaindikokoak. Horregatik, Iraizozko aita kaputxi-

noak egindako lana nabarmentzeko garaia dela uste du Jose Luis Lizundiak.

Eta hori lortzeko, argitalpenaren bidea hautatu du Euskaltzaindiak. «Polikarpo Iraizozkoaren ahalik eta lan gehien-eman nahi dugu argitara, eta dena ezin bada, behintzat apartekoena». Euskaltzaindiak duen asmo sendoa hori gauzatzeko Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu dio Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, «norbaitek gogoratu behar badu nafar euskal idazle bat, Nafarroako Gobernuak izan beharko lukeelako».

Ultzamatik Erromara • Aita Polikarporen bizitza, orain dela ehun urte, 1897ko urtarrilaren 31n hasi zen Ultzamako herri Iraizotzen, «ordu euskaldun hutsa zen herrian», berak hil baino hiru urte lehenago bere bizitzari bu-

ruz idatzi zituen lerroetan jaso zuen bezala. Agustín Zarranz Bermejo izan zuen bataio izena. Ama Puiukoa zuen, eta aita Iraizozkoa bertakoa. Herriko maisua zen, eta Polikarpok, beraz, herriko maisuaren etxean bizi izan zen. Etxe hura hamaika urte zituela utzi zuen, 1908. urtean Altsasan kaputxinoek zuten frailegai eskolan hartu baitzuten. Han hasi zen latina ikasten.

1912. urtean Zangozarako bidea hartu zuen, eta han egon zen 1914. urtera arte. Bertan egin zituen nobiziatu urtea eta latinezko bosgarrena. Hondarribia izan zuen hurrengo etxe. Filosofia ikastaro bat egitera bertaratu zen, eta hor idatzi zituen lehenengo olerkiak, eta baita alemaniera ikasi ere gramatika liburu batekin, berak bakarrik.

Iraizozkoak 18 urte zituela idatzi zituen lehen bertsoak, eta *Iru-garrego Prantziskotarran* plazaratu ziren 1916. urtean. «Hondarribian euskara berriz ikasten ari nintzela agertu ziren», aipatzen zion Polikarpok Berri-Otxoa anaiari, bere lanari buruz egin idatzian (1981. urtean Eus-

Polikarpo Iraizozkoari
omenaldia Ultzaman

Jose Luis Lizundia: «Nafarroako euskara landu zuen hizkuntzalaria izan zen batetik, olerkigile bestetik, eta baita itzulpengile ere»

Francisco Ondarra: «Ez zuten kanpora bidali Lekarozko errektoreak indar egin zuelako, haren beharra zutela erranez»

kera-n argitaratua). Francisco Ondarra euskaltzain eta kaputxinoak —bera ari da Polikarpo Iraizozkoaren lana biltzen— duen lehen bertso horien aldakian ere, berdin aipatzen du Iraizozkoak: «Ahantzixea neukan euskara, berriz ere jorratzen hasi nintzenean».

Hurrengo urteak Iruñean eman zituen Polikarpok. Apaiztu eta meza berria eman zuen 1921ean, eta hurrengo urtean Suitzara joan zen Euskaltzaindiaren eskutik Filologia Erromanikoa ikastera. 1923an itzuli zen Iruñera, kaputxinoen komentu zaharrera. 1930. urtean, Lekarozeko bidea hartu zuen. Baztanen bertan eman zituen Polikarpo Iraizozkoak Gerra Zibileko urteak, beste hainbat kaputxinoak Euskal Herritik kanpo alde egin behar izan zuten bitartean. «Bera ez zuten bidali —gogoratzen du Francisco Ondarra kaputxino eta euskaltzainak— baina arriskuan izan zen. Ez zuten bidali Lekarozko errektoreak indar egin zuelako, Lekarozen haren beharra zutela erranez».

Lekarozen latina, grekera, alemana eta beste hainbat gaitako irakasle izan zen, eta hori ezezik, inguruko herrietan ibili zen predikatzen. Lekarozen 1950. urtera arte egon zen, eta bertatik Erromara bidali zuten. Ordenako Idazlari Gehien izan zen hantxe, baita latineko idazle ere. «Lehenengo scriptor latinittatis izan zen», gogoratu eta nabarmendu du Francisco Ondarra. Erromatik atzera, 1972. urteko urtarrean, itzuli zen Lekarozera, «kargurik gabe», berak aipatu bezala.

Erroman urte asko eman bazituen ere, euskara ez zuen inoiz ahaztu: «Asko idatzi nuen latinez,

gaztelaniaz, italieraz. Baina hargatik ez nuen euskera bazterrerat utzi». Erromarako bidea ere bere euskarazko lan guztiekin hartu zuen: «Nere euskarazko lantxo guztiak, hitzaldi, hiztegiak, neurtitz, ekarri nizekin honara, asti orduetan horiek lantzeko eta apaintzeko», idatzi zuen Iraizozkoak, Francisco Ondarrak gogoratu zuenez.

Erromatik itzultzean Lekarozen eman zituen bere bizitzako azken urteak. Bertan ezagutu zuen Francisco Ondarrak. «Euskal gaietan bizitza osoa eman ondoren, nekatuta zegoen». Lekarozen harrapatu zuen heriotzak 1980. urteko apirilaren 5ean.

«Gizon xaloa eta maitagarria» • Kaputxinoak Lekarozen eman zituen urteetan ezagutu zuen Mariano Izeta idazle baztandarrak. «Gerra aitzinetik etorri zen. Hemezortzi bat urte nituen nik orduan, mutil gaztea nintzen. Eta Polikarpo Lekarozen zegoen, irakasle», gogoratu du Izetak. Iraizozkoari buruz, hitz goxoak baino ez ditu Baztango idazle eta euskaltzaleak: «Gizon xaloa zen, atsegina, maitagarria. Adiskidantza handia genuen, eta hemen denek maite zuten».

Polikarpo Iraizozkoak idatzi eta 1934. urtean argitaratu *Yesu Kristo gure Yaunaren Bizia* ere, Mariano Izetaren etxeko apal batean dago aspalditik. «Liburutxo zoragarria», dio baztandarrak. Polikarporen euskarari buruz ere, hitz ederrak ditu: «Izugarri polita zuen euskara. Ultzamako eta Baztango euskararen aldean, gainera, ez dago ia ezberdintasunik, eta ederki mintzatzen ginen. Gustura egoten zen bera Lekarozen», azpimarratu du Mariano Izetak.



1980ko urtarrilaren 6an ateratako argazkia. Polikarpo bere arreba batekin.

EGUNKARIA

Predikuak Baztango euskaraz

■ 1.430 orrialdeko bilduma argitaratzeko lanean ari da Euskaltzaindia

E. E. / Iruñea

POLIKARPO IRAIZOZKOAREN ekarpena oso joria da: 146 hamalaudun, 213 olerki eta hainbat salmo, horietako asko alemanieratik eta italieratik itzuliak. «Orotara, 15.000 bertso lerro baino gehiago», zehaztu du Francisco Ondarra kaputxinoak. Lan gehienak *Zeruko Argia* eta *Irugarrego Prantziskotarran* eman zituen argitara Ultzamakoak, 1936. urtean gerrarekin batera argitalpenok desagertu ziren arte. Ondoren, *Euzko gogoa*, *Olerki*, *Jakintza* eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarietan ikusi zituen Polikarpok bere lanak idatzita.

Oro har, erlijiozko gaiak erabili zituen maizenik Iraizozkoak lanetan, eta Ondarrak aipatu duenez, «lan txikiak dira gehienak». Badu, dena den, liburu bat: *Yesu Kristo gure Yaunaren Bizia*. «Lau ebanjelioen hitzez hitzeko itzulpena egin zuen», azaldu du Ondarra. Iruñeko kaputxinoen komentuko moldiztegian ikusi zuen argia 1934an. «Harrera ona egin zitzaion. Zenbait euskaltzalek eta euskal idazlek aitortu izan didate, erdi ahantzia zeukaten euskera, liburutxo hortan berri zutela. Ez ziren noski ale guziak saldu; 1936an saldu gabe zeudenak hondatu ziren, ez dakit nor...», zioen Polikarpok.

Irugarrego Prantziskotarra-n bere lehen bertsoek ikusi zuten argia, eta *Zeruko Argia*-n, berriz, berak ondutako bertsoek eta beste hizkuntzetatik itzulitakoek, beste hainbat lanen artean. Azken aldizkari horretan, Fernando Soloeta Dimako misiolariak liburutxo batean erdaraz kontatu Txinako misioetan komunisten menpean egon zeneko gertakarien itzulpena argitaratu zuen, zatika. Ez ziren, baina, guztiak agertu, baina berak bazituen osorik gordeta, «makina idatzita eta josita», Ondarrak jakinarazi digunez. 112 orrialdek osatzen dute.

Polikarpo Iraizozkoaren lana hainbat autorek goraitatu dute. Luis Mitxelenak *Historia de la Lengua Vasca*-n honela zioen ha-

ren hamalaudunei buruz: «Autore alemaniar erromantikoen itzulpen finak zor zaizkio, eta azken aldian, *Irisarri* ezizenaren azpian, hamalaudun sail perfektua, agian euskaraz idatzi diren onenak». Lino Akesolok ere goraitatu zuen haren lana.

Lan horiek ezezik, prediku bilduma zabala ere badu Ultzamako kaputxinoak idatzien artean. Orotara 1.430 orriko lana osatzen dute predikuek; bi liburutxo batenan banatuta daude eta makinaz idatzita, lau izan ezik. Horietako hiru erdaraz daude. Gai nontzeko guztiak, berriz, euskaraz, Baztango euskaraz. Egilea honelaxe mintzo zen bere predikuei buruz: «Hemen daukat prediku pila bat: Igandeetako homiliak, Euskaristiaz, Jesusen Bihotzaz, Andre Mariaz, zenbait Santurenak, beste gai askotakoak. Baztango euskeraz predikatuak hemen gure elizan eta alde hauetako herrietan, Zugarramurdiatik hasi eta Beraraino, eta bai Aralar mendiko elizan ere. Nora joango dira argitaratu gabeko guzi hoiek?». Polikarporen kezka jaso eta argitaratzeko ahalginetan dabil Euskaltzaindia ere.

Jose Luis Lizundiak azpimarratu duenez, «lanean hasi gara jada». Lizundiaren ustez, Nafarroako euskararen azterketa linguistikoa egiteko ere garrantzitsuak izango dira Polikarpo Iraizozkoaren predikuak. X



Polikarpo Iraizozkoa, Maria Josefa eta Angelita arrebeekin ezkontza batean.

EGUNKARIA

‘Zeruko Argia’ eta ‘Irugarrego Prantziskotarra’ aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak, gerrarekin desagertu ziren arte

Xanti Begiristain

Garraiolarien greba

■ Atzo amaitu zen kamioilarien garraio greba, dexente luzatzen ari zenean. Horren inguruan hainbat burutazio egin nahi nituzke.

Bateko, leku batzuetan hornidurak, janariak eta edariak agortzen hasiak omen ziren. Besteke, material eta lehengai eskasiagatik enpresa eta lantegi batzuk itxi behar izan dituzte.

Dena gurpil handi bat bilakatzen ari zen. Gurpil zoroa bezalaxe, jiraka eta biraka zihoan, denok pixka bat nahasiz.

Jende asko, beldurak eraginda edo, gauza eta erregai gehiegi hasi zen erosten. Horrek, denda eta saltokietan, eskasia areagotu zuen. Baina psikosia psikosia da.

Gauza bat argi dago. Greba, legezko eskubide demokratikoa da beste konponbiderik ez dagoenean. Eta dirudenez, azken aste hauetan lehertu den garraiolarien arazo hau aspalditik heldu omen da.

kadi Ta Askatasuna erakunde armatua izan omen dira. Besteak beste, antzeko zerbaite esan omen du Jose Maria Aznarrek ere. Zer egingen dugu ba? Badakigu gaizki informaturik daudela, edo bestela, asmo txarrez esan dituztela. Niretzat, eta inolako zalantzarik-gabe gainera, azkeneko hori da gertagarriena.

Baina garraiolarien grebara berriro itzuliz, honako gauzatxo hauexek esan nahi ditut: hara, arazo eta istiluak sortzen direnean, konpontzen saiatu beharra dago. Arduradun batek ez baditu konpondu nahi, nire iritzi apalean, gaizki jokutzen du.

Beste alde batetik, badakit inork ez daukala beti erabateko egia. Eskuarki egia banatuta egoten da, baina era berean sinesten dut egia gehienetan egoten dela gehiago alde batzuetan besteetan baino. Beraz, aztertzen ari garen aferan, nik us-te dut guztiz zilegi dela kamioilariak lor-



Kontu franko esan eta baloratu dira; konparaziora, gutxieneko behar eta zerbitzuak bete beharko lirakeela, poliziek eta ertzainek babestutako konboiak zilegi ote ziren... Eta beste horrenbeste helikopteroaz baliatzeari buruz. Beste aldetik, grebalariek burututako piketeak desegokiak eta legez kanpokoak ote ziren eta abar.

Enplegu erregulazioaz ere gogotik hitz egin da. Erregulazio hau, nire ustez, zuzen-zuzenean doa langile xumeen esku-bideen aurka, eta zinez iruditzen zait jorkaera horrekin enpresariak eta lantegietako nagusiek lotsagabeki aprobetxatu nahi izan dutela egoera, modu desleial batez eta beren onerako.

Astakeria galantak ere entzun eta irakurri ahal izan dira zenbait komunikabidetan, eta jakina, adierazpen horiek egin dituzten pertsonentzat, gertaera guztien arduradun eta errudunak, kasu honetan garraio grebarenak, erradikalak eta Eus-

tu nahi izatea hobekuntza batzuk zenbait arlotan, esate baterako, aurrejubilatzea, kamioilari kopurua, gasolioa merkeago eskuratzeko era, garraiolarien lanbide-gaixotasunei dagokien alorretan eta beste.

Gorago esan dudan bezala, argi dago greba honek gizarteko guztiok ukitu eta kaltetu gaituela, baina errudun eta erantzulerik handiena bilatzekotan, kasu honetan, nik ez dut zalantzarik egiten Espainiako Gobernua izan dela, lehenago negoziatzen ez hasteagatik. Azken batean, gatazka hau zaharra baita.

Eta bukatzeko euskal lexikoari lotuko natzaio. Hara, hainbat euskal komunikabidetan berdin erabiltzen dituzte honako hitz hauek, alegia, sinonimoak bailiren: kamioiazale-kamioilari, taxiazale-taxilari, grebazale-grebalaria eta abar. Esan diezadatela, adibidez, gauza bera ote diren pilotari-pilotazale, futbolari-futbolzale eta abar. Okerrak zuzendu beharra dago. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sakan Mix IV: Arbizuko segizioa: Urkia eta Araña laterandarrak

■ Geure Sakana honen erdi erdian dagoen Arbizutik elkiriko euskal idazleak ez dira gutti izan, nahiz arras ezagunak ez dituzkegun. Naski egun baditugula izen hantua, Olasagarre olerkari gaztea berbarako, baina gaurkoan hona ekarriko ditugunak apur bat zaharragoak badira, eta urrin literarioa horren nabari ez badarite ere, zer esanik badutelakoan bagaude, eta horren frogatzeko ahaleginak bederen egingen ditugu. Arbizun 1932.eko otsailaren 9an sortu Felipe Araña Mendinueta fraide laterandarrak, arestian zer edo zer bazigun utzi euskaraz izkiriaturik. Nahiz 1959.ean apezte ostean, Argentinari buruz jo, eta Montebideon ere bizi izan, hainbat idazki laga ditu harat hunitako izparringi ezberdinetan. Euskara batuari horrenbesteko higuina dion *Diario de Navarra* eguneroko eskuindarrak euskaldunekiko duen zorra zuzitzeko asmoz argitara eman bide duen *Napar izkuntza* orrialde zaharkitu bezain eskaxean oixtitan ageri zen Arañaren izkribu laburra, behiala Principe de Viana argitalpenaren euskarazko gehigarrian jada eman zuen beste baten antzera, bada, joan zen otsailaren zortzikoa Fernando Urkia arbizuar ospetsuenari omenaldia Argentinan izenburukoa agertarazi baitzuen eta esan beste gehigarri hartan 1968.eko iraileko zenbakian *Arbizuar agurgarri bat* izenburukoa ere jaso zuen, zaharragoa izateagatik ere askozaz huts gutxiagorekin elki zena, ene begikoz ordea gehixegi harritzekoa izan behar etzuen —bigarren hau Txema Larreak apailatu *Nafarroako euskal idazleak II* bilduma ederrean berrargitaraturik badago—. Bi hauetan Arbizuko semea ere genuen Fernando Urkia fraidekidea zuenaren berri eman zigun. Aitzitik bizitz ezpalak baino etziren, eta Urkiaren literatur langintzaz ia ezertxo ere etzizgun aipatu. Dagoeneko ezaguna dugun Alegria lakuntzarrak oparoago zitzaigun *Gure ama* idazkian: «Apaiza, Oñatin irakasle, idazti batzaldietan sari politak irabazten oitua da Iruñan ala Donostian. Bere *Ilargi bete*a antzerkiak irabazi zuen Euskararen Adiskideak-en sari lenbizikoa. Euskalduna porrokatua baita, eta xelebreria, Arbixuarra izan bear! Iruñako lagunarteak lankidenezat artu du», alabainan hau guztia urri dakigukelakoan, bihoa berri andana maratzagoa.

Fernando Urkia 1896.ean sortu zen Arbizuko Anttonekoan. Gazte zela anaigo laterandarren abaroan bildu zen, Altsasun lehenbizi, eta Oñatira geroxeago. Hantxe bukatu zituen ikasketak, apezte, eta irakaskuntzan ere hasi. Euskaraz idazteari bertan ekin zion, gerratea iritsiri bitartean. Orduan ihes egiteko garaia heldu zitzaion, Frantzia aldeko Abaye de Beauchen eta Argentinako Salta herrian ere. Hartan etxeko nagusi aukeratu zuten, geroxeago probintziala eta azkeneko orden osoko buru nagusitzat. Horren kariaz Erroman bizi izan zen denboraz, eta hartan zendu zitzaigun 1959.eko martxoaren 19an.

Izkiriatu zituenak etziren makalak izan. Saihets orotarik Euskalerriarekiko maitasuna ageri zitzaion: «Gizonak euskaldunengandik asko ikasi lezatekela egi aundia da. Gauza askotan, gai aintzalgarri askotan beste guztien aurretik gabilza euskeldunok; ezin ukatu dezake inork ontasunbide guztietan besteak baño gorago gaudela». Euskerarekiko zuen kezka ere etzitziaon hatzendurik geratzen: «Euskera ludiko izketarik zakar, itxusi ta motelena balitz ere, gure begi-niniak baño maiteago izan bear genduke, gurea dalako, gure izate puska bat dalako, bere zañetako odolaz lotsatzen danak lur gañean egotea ere ez baitu irabazten». Lan gehienak *Euskal Esnalea* aldizkarian agertarazi zituen. 1926.eko alekian *Nekazarren elkarganako laguntza* izenburukoa eman zuen, Arbizuko aztura baten azalgarri. Ber urteko zenbakian *Euskera aldeko esakun batzuk* nahiz *Mikel Trakets* izeneko ipui ederra agertu zituen. 1928.eko agerpenean gai historikoak oratzeko saio bi argitaratu zituen: *Oñaz eta Garboatarrak* eta *Beotibarko gudaketa*. Gai historikoak jorrazteko estraineko aldia ordea egenuen honakoa, izan ere *Oñate* aldizkarian hiri honi buruzko saioa eginga baitzuen 1927.ean. Guziarekin sormen lanari etzion muzin egin eta *Sarteko agintariak* izenburuko ipua ere agertarazi zuen liburuki berean. 1929.eko emanaldian, hiztegitzaren arloan interesgarri ziren hainbat plazaratu nahi izan zuen, *Gure nekazarren tresna ta gañerako gauzen izenak* izenburuko saio luzangaren bitartez. Paremiologiakoak edo litezkeenak ere agertu zituen, ber urteko *Armeniarren esakun batzuk* eta 1931.eko *Esakunak: jantzi-gekeria* izenburukoak. Edozelan ere, artikuluez lekot, bi izan ziren argitara eman zituen lan sollak, eta biak ere antzertilanak. ■

Karraperen uhinak berriro airera

IKA euskaltegiko kideak eta Unai Zabaleta izanen dira Leitzako irratiko behin-behineko arduradunak

Karrape irratia ahotsa astlehenean aireratuko da berriro, iazko urriaren 11z geroztik isilik egon ondoren. Leitzako Udalak herri irratia noren esku utzi erabakitzeaz azterketa prestatu bitartean, IKA euskaltegiko kideak eta Unai Zabaleta izanen dira Karrape irratiko behin-behineko arduradunak. Datozen hilabeteetan programazio «anitz» eskainiko dutela aurreratu digu Unai Zabaletak.



Unai Zabaleta, Kontxi Zozaia —eserita— eta Amaia Astibia, Leitzako Karrape irratian.

OSKAR MONTERO

Edurne Elizondo / Iruñea

IAZKO urriaren 11n uhinetatik desagertu ondoren, astlehenean leitzar guztien etxeetan izanen da berriro Udaleko Karrape Irratia. Herrian, hainbat iritzi sortu zituen Karraperen ixteak. Irratiko esatariak —Anabel Alduntzin eta Abelina Zabaletak— ezustekotzat jo zuten Udalaren irratia behin-behingo isilarazteko erabakia, eta itxi zuten egun berean jakin zutela Udalaren asmoaren berri azpimarratu zuten. Herriko etxearen jokabidea salatzen zuten orri batzuetan. Mikel Iñarregi Leitzako alkateak, berriz, hasieran ezarritako helburuak ez zirela bete, eta Udalak proiektua berraztertze denbora behar zuela azpimarratu zuen. Karrape berriro lehenbailehen abian jartzeko konpromezua hartu zuen, halaber. «1997. urteko hasieran berriro martxan izanen dela espero dugu», erran zuen Leitzako alkateak Karrape itxi zutenean egin elkarriketan.

Eta hala izanen da. Astelehenean, IKA euskaltegiko kideak eta Unai Zabaleta leitzar hartuko dute Karrape Irratiaren ardura euren gain. IKA eta Zabaletak, dena den, behin-behingo baino ez dira egonen Karraperen. Udalak irratiko esatariak kontratatze oposaketak egin bitartean, alegia. «Udalak azterketa eginen du irratia noren esku utzi erabakitzeaz azterketa prestatu bitartean, IKA euskaltegiko kideak eta Unai Zabaleta izanen dira Karrape irratiko behin-behineko arduradunak. Datozen hilabeteetan programazio «anitz» eskainiko dutela aurreratu digu Unai Zabaletak.

bakitze, baina aurretik hiru edo lau hilabete igaroko direnez, bitartean guk jarriko dugu abian irratia», azaldu digu Unai Zabaletak, «isilik denbora gehiago eman ez dezan».

Zabaletak ezaguna du Karrape Irratia, lehenik ere egin baitu bertan lan, eta hori dela-eta laguntza eskatu zioten IKA euskaltegiko kide eta arduradunek. Zabaletak baietz erran eta azterketa egin bitarteko proiektua prestatzeari ekin zioten.

Datozen hilabeteetan Leitzako Karrape Irratian entzun ahal izanen diren saioen helburuak ere zehaztu dituzte dagoeneko irratiko arduradun berriek, eta Unai Zabaletak eman digu horien berri: «Funtsean, bi dira nagusiak: alde batetik, euskara bera bultzatzea, eta bestetik, herritar guztien benetako partehartzea lortzea».

Azken helburu honen ildo beretik, Leitzako elkarte eta taldeek Karrape Irratian txoko bat izan dezaten lortu nahi dute irratiko behin-behineko arduradun berriek.

Gogoratu beharra dago hain zuzen ere herriko taldeen partehartzearen inguruan sortu zirela tirabirak irratiko aurreko ardu-

radunen eta Udalaren artean, herriko etxeko kideen ustez Karrape ez baitzuten lortu talde eta elkarten bilgune izatea. Eta Udalaren ustez, hori da irratia funtzio nagusietako bat.

Programazio anitza Karrape Irratian

Karrape Irratiko ahots berriak Amaia Astibia eta Kontxi Zozaia IKAko kideenak eta Unai Zabaletarenak izanen dira. Astelehenean aurrera, eta astelehenean ostiralera, goizeko hamaika eta erdiak eta ordu biak bitartean izanen dira leitzar guztien etxeetan Karraperen uhinen bitartez.

Irratiari ahotsa eurek jarriko badiote ere, atzean euskaltegiko kide eta lagun guztiak izanen dituztela ziurtatu digu Unai Zabaletak, «guztiena baita proiektua».

Programazioari dagokionez, «anitz» izanen dela azpimarratu du Karrape Irratiko esatari berriak, «mota guztietako saioak izanen baitira eta hainbat gai jorratuko baititugu». Elkarrizketak eta lehiaketak egiteaz gain, kalera aterako dira Karrape Irratiko esatariak, besteak beste, leitzarrek mota guztietako gaien inguruan duten iritzia jaso nahian.

Bazterrak nahasten saioan, halaber, herriko talde, lagunarte, elkarte eta bestelakoak hurbilduko dira Leitzako herriko etxera Karrape Irratian parte hartzeko. «Horien funtzionamendua ezagutu nahi dugu, egiten dutena jakin, euren gauzak azaldu», azaldu digu Unai Zabaletak. Baina herriko taldeak gonbidatu ezezik, herritarrengana ere hurbilduko direla gaineratu du Karrape Irratiko esatariak.

Karrape Irratiko langileek esku artean hartuko dituzten gaien artean hainbat aurreratu dizkigu Unai Zabaletak. Asteleheneko goizak, adibidez, naturari eskainiko dizkiote. Hezkuntzak, osasunak eta bidaia bereziek, besteak beste, parte berezia izanen dute astean zehar. «Eta baita euskarak berak ere», nabarmendu nahi izan du Zabaletak.

Karrape Irratiaren ardura behin-behingo hartu badute ere, IKAko kideak eta Unai Zabaletak, Leitzako Udalak ardura hori noren esku utzteko erabakitze prestatuko duen azterketan parte hartzeko asmoa dute. «Horretarako, proiektu zabalagoa prestatuko dugu», aipatu digu Zabaletak.

Leitzako IKA euskaltegiaren eskutik, beraz, Karrape Irratiaren ahotsa berriro zabalduko da datorren astelehenean goizeko hamaika eta erdiatik aurrera, urriaren 11z geroztik isilik egon ondoren.

«Irratia guztientzat dago zabalik»

LEITZAKO UDALAK argi zuen Karrape Irratia lehenbailehen abian jarri nahi zuela berriro. Horregatik, irratia noren esku utzi erabakitze beharrezko pausoak eman bitartean, IKAren esku utzi du Karrape Irratia. «Hasierako esperientzia hartu dugu oinarritzat. Karrape martxan jarri genuenean herriko talde guztiei eskaini genien bertara joateko aukera, eta hasieran denak animatu baziren ere, IKA izan da jarraitu duen bakarra. Horregatik, behin-behingo irratia noren esku hartzeko egokia izanen zela uste izan dugu», azaldu digu Mikel Iñarregi Leitzako alkateak. Baina argi utzi nahi izan du irratia herriko talde eta elkarte guztientzat dagoela zabalik.

Irratia era ofizialean berriro abian jarri aurretik gutxienez bi hilabete igaroko direla uste du Mikel Iñarregi, «eta ziur gehiago izanen direla», gaineratu du. Irratirako proiektuaren txostena ia amaituta badago ere, Leitzako Udalak onartu behar du oraindik, eta hori hurrengo batzarrean eginen du, martxoaren erdialde inguruan. «Izapideak egiteko denbora luzea behar da, lehendabizi Nafarroako Gobernura bidali behar baita, besteak beste», gogoratu du Mikel Iñarregi.

Bestalde, Karrape Irratiko arduradun berriak aukeratzeko moduari buruz, talde bakoitzak aurkeztutako proiektuak hartuko dituzte kontuan lehendabizikoz Udaleko kideak. Proiektu bakoitza aztertu ezezik, irati lanetan bakoitzak duen esperientzia kontuan hartu ere egingo dute. Ildo horretan, aipatu beharra dago, Mikel Iñarregi azpimarratu legez, «IKAk astelehenean aurrera irratian emanen duen denbora ez dela aintzakotzat hartuko» esperientzia neurtzeko. «talde guztiek baldintza beretan hartu behar baitute parte lehiaketan».

Era berean, proiektuak aurkeztuko dituzten taldeek hainbat proba egin behar dituzte irratia noren esku utzi erabakitze aurretik. Besteak beste, epaimahaiko kideek emandako gai bat abiapuntutzat hartuta batabateko saioa, euren proiektuaren azalpena eta ordu erdiko saioa egin behar dituzte partehartzaileek. X

Unai Zabaleta: «Euskara eta herritar guztien partehartzea bultzatu nahi ditugu»

◆ Juan Satrustegi ◆ Idazlea

«Gauzak gal ez daitezzen idazten ditut»

Juan Satrustegi Lizarrako idazleak 'Personas, leyendas e historias de la tierra' bere azken liburua aurkeztu zuen joan den astelehenean Iruñean, Nafarroako Ateneoak antolatu ekitaldian. Emilio Etxabarrren eta Pedro Lozano Bartolozzik aurkeztu zuten Lizarrakoaren lan berria, idazlearen lagun eta jarraitzaileen aurrean.

Edurne Elizondo / Iruñea


EKITALDIA hasi aurretik izan genuen Juan Satrustegirekin hitz egiteko aukera. Orain dela bi urte *Memorias de un anarquista en las tropas de Franco* idatzi ondoren, bere herriko pertsonaia eta gertatutakoen harira itzuli da berriro ere Lizarrakoa. Besteek kontatutakoak eta bere oroimena izan ditu lagun horien berri emateko.

■ **Nola sortu da *Personas, leyendas e historias de la tierra* liburu hau?**

Era berezian, eta, aldi berean, arrunki sortu da. Hogeita hamar bat urte eman ditut nik saltzaile lanean, eta Lizarrerri osoan zehar bidaiatu behar izan dut, baita hortik kanpo ere. Bidean, hainbat eta hainbat urtetan, eta oroimenari esker, herri horietako istorioen, kontakizunen eta gertakarien berri izan eta jaso ditut, eta orain idatzi ditut denek ezagut ditzaten.

■ **Pertsona, kondaira eta istorio horien artean, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

Pertonen artean, Beiren jaiotako Jose Lazaro Galdiano aipatuko nuke, nahiz eta Lizarraldekoa ez izan. Pertsonaia handia izan zen arte eta kulturaren munduan, besteak beste, baina gaur egun ahantzia dago. 1947an modu ilunean hil zen. Ustez estatu krimena izan zen, baina ez du inork argitu. Istorioren artean, Santa Koloma ermitarena aipa-



Juan Satrustegik Iruñean aurkeztu zuen bere azken liburua.

LUIS AZANZA

tuko nuke. Haurdunen Andre Maria deitzen diote, haurdun diren emakumeek zortzi hilabeteko direnean berarengana joan behar dutelako haurra ongi jaio dadin. Hagitz bitxia eta berezia da. Pertsonaien artean ere ez dugu ahaztu behar Filipinetara joan zen misiolari anarkista, anaiak berriro bueltan bidali zuena, bere langileak altxatzera bultzatzen ari zelako. Dena den, pertsonaia eta istorio asko eta asko dago, mota guztietakoak.

■ **Ez da hau Lizarrari eta inguruko herriei buruz argitaratu duzun lehen liburua. Nondik datorkizu horiek idazteko gogo eta interesa?**

Zaletasuna betidanik izan dut. Eskola hamaika urte nituela utzi nuen. Gero gau eskoletara joan

behar izan nuen, eta, hori bai, nire eskuetara ailegatzen zen guztia irakurtzen nuen. Pablo Antoñana lagunak nekazari ilustratua dela erraten duen bezala, ni analfabeto idazlea naiz. Kazetari lanean ere ibili izan naiz, Nafarroako hainbat egunkari eta irratitan. Nire lanaren ondorioz gauza asko heldu da nire belarrietara, eta nik horien berri eman dut, besterik gabe. Nire asmo eta gogo bakarra horiek guztiak ez galtzea da. Gertakizun eta istorio ezezagun asko dago, eta nik horien berri eman nahi dut, ahal dudan neurrian.

■ **Aipatu bezala, dena den, ez dira Lizarrari buruzkoak zure liburu guztiak. Hor dago *Memorias de un anarquista en las tropas de Franco*, oso ezberdina.**

Oso ezberdina da, bai. Eta liburu hori da poz eta tristura gehien eman didana ere. Alde batetik, historialari madrildar batek idatzi zidan gutun bat erranez nire liburua bakearen aldeko aldarrikapena zela, hizkuntza

guztjetan idatzia egon behar zuela. Baina kritikak ere jaso nituen, CNTko kide batenak, besteak beste. Edozein modutan, liburu ezberdina da. Gauza bitxi eta politoi buruz idaztea ongi dago, baina salaketa ere beharrezkoa da. Hori da idazteari buruz nik dudant iritzia.

■ **Lizarrari buruz entzun eta aurkitu dituzun gertakizun eta istorio guztien artean, egonen da bat bereziki harritu zaituen...**

Lehenengo liburua idatzi nuen, egia erran, gauza asko aurkitu nituen, Lizarrako monumentu, pertsona eta kaleetan barrera ibilaldi berezia zen. Hor jaso nuen, adibidez, Lizarran Eladio Esparzaren bidez aurkitu zituzten txanpon arabiarren istorioa. Aurkitu eta berriro desagertu egin ziren. Tragedia handia izan zen, eta Esparzak eraso asko izan zituen txanponak berriro ager zitezten. Epaitegira ere joan behar izan zuen. Azkenean, herriko emakume baten etxean agertu

s o s l a i a

Juan Satrustegi 1919. urtean jaio zen Lizarran eta, orduz geroztik, herriko historia eta pertsonaia ezagunak ikertzen eta aztertzen eman ditu bere bizitzako ia urte guztiak. Hamalau urterekin, jada, kazetari lanetan aritzen zen 'La Merindad Estellesa' egunkarian.

Lehen liburua, dena den, Donejakue bideari buruz idatzi zuen, 1975ean, herriko beste zenbait lagunekin egin zuen bidaiaren ondoren. «Han ikusi eta bizi izandakoak jaso nituen», gogoratu du egileak.

Horren ondotik, Lizarrako historia protagonista nagusi zuen lehenengo liburua kaleratu zuen Juan Satrustegik, 'Historias antiguas y contemporáneas de la ciudad de Estella', alegia. Urte askotan bildutakoak eman zituen bertan eza-gutzera. Horren no-

labaiteko jarraipena da astelehenean Iruñean aurkeztutakoa.

ziren, eta orain Nafarroako Museoa daude.

■ **Lizarrako historia hainbeste ikertu ondoren, zer-nolakoa da berari buruz duzun irudia?**

Gaur egun, egia erran, husten ari den lurraldea dela erranen nuke. Mila biztanle izan dituzten herrietan 300 besterik ez dira gelditzen orain, Lanako ibarrean gertatzen ari den bezala. Pena handia ematen dit. Herri guztiek izan beharko lukete hurbilean zentro bat, Iruñeak eta inguruko herriek osatzen duten makroherriak sortu beharrean.

■ **Zure herriari buruz egindakoak eman du fruiturik, eta 1995ean Urteko Lizarratar izendatu zintuzten.**

Bai, oso pozik nago. Halako gauzek norberaren harrokeria asetzen dute. Gainera, Juan Ramon Corpas nire lagunak dioen bezala, omenaldiak beti dira politik bizirik zaudenean jasotzen badituzu, bestela ez dute balio. x

«Gauza bitxi eta politoi buruz idaztea ongi dago, baina salaketa ere beharrezkoa da. Iritzi hori dut idazteari buruz»

BEKARIO!

Zaldi

